

**27. ORDENANTZA FISKALA****UDAL KIROL ERAKUNDEA TOKI ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN
ZERBITZUENGATIKO ETA KIROL JARDUERENGATIKO TASA**

27. Ordenantza Fiskalaren tarifak eta 1.3, 6.1, y 10 eranskinaren atalak aldatu egin dira. Honela idatzita geratu da:

ERANSKINA

Zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik Ordenantza honetan araututako zerga-kuotak ondorengoak dira:

1. Abonatuak**1.1. Eskubideak**

Abonatu guztiek ondorengo eskubideak izango dituzte:

- Kirol txartela aurkeztuta, UKEren edozein kirol-instalaziotara sartzeko.
- M.A. Blanco Udal Kiroldegian, instalazioak ezarritako ordutegi eta baldintzetan, ur-berodun igerilekua, spa-gunea, oinarrizko muskulazio-gimnasioa, sauna eta lurrrin-bainua, aldagelak, dutxak eta armairuak libreki erabiltzeko.
- Pilotalekua astelehenetik ostiralera (jaiegun denean izan ezik) goizeko ordutegian 16:00ak arte doan erabiltzeko.
- Betiondo Kirol Gunean, instalazioak ezarritako ordutegi eta baldintzetan, atletis-moko pista, gimnasioa, boulder-rokodromoa, aldagelak, dutxak eta armairuak libreki erabiltzeko.
- Instalazioen erreserba egitean lehentasuna izateko, bai ekonomikoki bai erreserba egiteko epeari dagokionean.
- Kirol ikastaroak beste batzuen aurretik egiteko eta prezio murriztuak izateko.
- Erreserbak telefonoz eta hileko ordu zehatz baterako egiteko.

Ikus kirol instalazioen erabilera-araudian zerbitzu batzuk eskuratzeko eta erabiltzeko baldintza bereziak.

1.2. Motak

Ondorengo modalitateak ezartzen dira:

- A mota: Familia-Txartela: ezkontidea edo bikotekidea barne dela, eta hala denean, 24 urteak betetzen diren urteko abenduaren 31ra arte jaiotako seme eta alabak, eta adin-mugarik gabe ehuneko 65 edo gehiagoko minusbalotasuna dutenak, eta beti ere bizikidetzaren unitatearen parte direla frogatzen bada.

Abonatuei buruzko atal honetan ezarritakoari dagokionean familiazat hartuko da Erregistro Zibilean edo Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatuta egonik, helbide berean erroldatuta daudenak. Berori egiaztatzeko familia-liburua edo dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da.

- B mota: Heldu Txartela: 19 urte betetzen diren urteko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako pertsona guztiak.
- C mota: Gazte Txartela: 18 urte betetzen diren urteko abenduaren 31 arte jaiotako pertsona guztiak.



1.3. Tarifak

Ermuku Udal Kirol Erakundearen instalazioetan sartzeari, aldeztuak diren txartela edo eskumuturreko pertsonal eta besterenezina aurkeztuta, urteko kuota hauek ordainduko dira:

Urteko abonuaen tarifak	Euro
Familiakoa	198,20
Helduena	124,55
Gazteena	73,80

Txartelak jaulkipen- eta kudeaketa-kostua du, eta ez zaio abonatuari edo erabiltzailerari jasanaraziko lehen emisioan.

Txartela ematea edo berritzea kasu hauetan bakarrik izango da doakoa:

- Lau urte iragan baldin badira azkenengo aldiz egin edo berritu zenetik.
- Karneta ebatsi edo lapurtua izan denean, dagokion salaketa aurkeztuta.
- Abizenak, horien ordena edo izena aldatzen denean, indarrean den NAN aurkeztuta.

Abonatutako pertsonak contactless eskumuturreko pertsonal eta besterenezina eskatu ahal izango dute kirol-instalazioetara sartzeko. Eskumuturreko horren kostua eranskin honetako 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jasanaraziko da.

Urteko abonua gain, aukera dago urteko edozein momentutan alta emateko. Horrela, alta urteko lehenengo lauhilekoan ematen bada, urte osoko kuotaren prezio berbera ordaindu beharko da; eskaera bigarren lauhilekoan eginez gero, %25eko deskontua aplikatuko da, eta eskaera hirugarren lauhilekoan aurkeztu ezker, %60ko deskontua izango da urteko abonuaen prezioan.

1.4. Dokumentuak

Abonu guztiak

- Izena emateko inprimakia beteta. Berori kirol instalazioetan edo webetik deskargatuta eskura daiteke, eta UKERen bulegoetan entregatu. Adin txikikoen kasuan aitak/amak edo tutoreak sinatu beharko du.
- Ordainketa egin izanaren egiaztatzea. Ordainketa izen-ematea izapidetzen denean unean banku-txartelarekin egin beharko da Kiroldegian bertan edo bestela lehenago UKEK Kutxabanken duen ES09 2095 0040 6091 0116 9486 kontu zenbakian dirua sartuta.
- Txartel zaharra, lehen ere abonatu izan eta itzuli ez bada. Lehenengo urtean txartela eskuratu eta hurrengoetan alta ematean txartel berria izapidetu behar izanez gero, aparte ordaindu beharko da txartela egiteagatik tasa.
- Ordain-agiria banketxean helbideratu izanaren agindua.

Famili abonua

- Famili Liburuaren kopia eta/edo izatezko bikoteen Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.
- Abonua eskatzen duenak bizilekua Ermuan izatearen ziurtagiria, bere etxebizitzan erroldatuta azaltzen diren gainontzeko kideenarekin batera. Interesdunak Ermuko Udal Kirol Erakundea baimendu dezake bere errolda etxebizitza egiaztatzeke. Hala izatekotan, ez da ziurtagiria aurkeztuko (*).
- Abonuaen titularraren eta onuradunen indarreko NAN edota AIZ-aren kopia alde bietatik, eta 14 urte baino gazteagoa izanez gero, NANik ez badu, famili liburuaren kopia.



- Abonuaren titularraren eta 3 urte baino gehiagoko onuradun bakoitzaren txartel tamainako argazki egin-berri bat (originala). 3 urte baino gutxiago dituzten kideentzat ere sarrera-txartela nahi izanez gero, horien argazkia ere beharko da.
- Edukiz gero, desgaitasun-graduaren egiaztagiria.

Banakako abonauak

- Titularraren NAN edota AIZ-aren kopia alde bietatik, eta 14 urte baino gazteagoa izanez gero, NANik ez badu, familia-liburuaren eta bere ordezkariaren NANaren kopia.
- Txartel-tamainako argazki egin-berri bat (originala).

(*) Indarrean dagoen Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako legeriak ezarritakoaren arabera eta herritarren udal eroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoei jarraiki (2015eko urtarrilaren 30eko INEren ebazpena), famili-unitateko kideen izaera pertsonaleko datuen lagapenerako baimena izan behar du. Adin txikikoen zein tutoretzapeko kasuan, datuen lagapena euren gurasoek edo tutoreek baimendu beharko dute, adinez nagusi denean edo bere gaitasunak aldatzen direnean, norbanako gisa beren beregi baimendu beharko dutelarik. Baimen honek izaera egonkorra du. Baliogabetu nahi izatekotan, interesdunak Udalera zuzendu eta baliogabetzea eskatu beharko dute.

2. Abonatugabeak**2.1. Tarifak**

Nohizbehinkako erabiltzaile abonatuak Ermuko Udal Kirol Erakundearen kirol-instalazioetara sartzeko, ondorengo ordainduko da:

Abonatugabeen sarrerak	Euro
Bakarkako sarrera	5,10
5 sarrerako bonoa	20,70
3 urtetik beherako haurrak, pertsona heldu batekin	Doan

3. Sarrera bereziak**3.1. Tarifak**

Sarrera berezien kasuan, ondorengo ordainduko da:

Sarrera bereziak / Pases especiales	Euro
Aldi baterako abegi-programak / Programas de acogimiento temporal	Doan / Gratis

3.2. Baldintza orokorrak

Sarrera bereziak izango dituzte GKEek suspertutako aldi baterako abegi-programetan parte hartzen duten UKEko abonatuak.

Eskaerak sarrera berezi hori izango den eguna baino 15 egun aurretik aurkeztu beharko dira gutxienez, eta idatziz beti ere. Eskaera UKEko zuzendariari bidaliko zaio, arrazoiak azalduz eta adierazitako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko behar den dokumentazioa erantsita.

Kirol txartela da sarrera berezia egiaztatzeko euskarria, pertsonala eta besterenezina izanik.

Sarrera berezia edukita ez dira UKEko abonatuaren eskubideak eskuratzen.

Onuradunek, kirol txartela aurkeztu ezker, doan sartu ahal izango dira UKEko kirol instalazioetara eta doan erabili ahal izango dituzte igerilekua, aldagelak eta duxak, bai eta UKEk, kasuan kasuko araudien arabera, bere garaian onartzen dituen eta behar denean iragarriko dituen zerbitzuak.

Sarrera bereziaren baliozkotasunak eta eskubideen aplikazioak sarreran jasotzen denbora iraungo du.

**4. Instalazioen erreserba****4.1. Tarifak**

Instalazioak, argi elektrikoa barne (beharrezkoa bada), erreserbatzeko ondorengoa ordainduko da:

	Euro
Squash	
Orduko	Doan
Padela	
Orduko	4,30
Ordu eta erdi	6,45
Kiroldegiko eta betiondoko pista estaliak	
Pista osoa, orduko, lanegunetan	42,30
Pistaren modulu bat, orduko	15,80
Pistaren modulu bat, orduko	29,60
Pista osoa, orduko, larunbat, igande eta jai-egunetan	27,55
Hileko, ordu jakin bat astean, pista osoa	141,35
Hileko, ordu jakin bat astean, modulo bat	47,05
Betiondoko atletismo pista	
Pista osoa, orduko	42,30
Jauzirako modulu estalia, orduko	42,30
Betiondoko futbol zelaia	
Orduko, osorik, lanegunetan	54,95
Futbol 7ko moduloa, orduko, lanegunetan	35,70
Orduko, osorik, larunbat, igande eta jai-egunetan	38,60
Futbol 7ko moduloa, orduko, larunbat, igande eta jai-egunetan	25,30
Zelai osoa, hileko, ordu jakin bat astean	171,35
Futbol 7ko moduloa, hileko, ordu jakin bat astean	91,55
Aritzmendi pilotalekua	
Orduko, lanegunetan 8:00etatik 16:00etara	Doan
Orduko, lanegunetan, 16:00etatik 22:00etara, larunbat eta jaiegunetan	10,45
Hileko, ordu jakin bat astean lanegunetan 16:00etatik 22:00etara, larunbat eta jaiegunetan	47,05
Aritzmendi pilotalekua gela	
Orduko	8,35
Hileko, ordu jakin bat astean	30,25
Kiroldegiko Igerilekua	
Orduko, kale bat	33,40
Orduko, osoa	200,10
Kiroldegiko haur-igerilekua	
Orduko,erdia	33,35
Orduko	66,70

**5. Kirol Jarduera Fisikoak****5.1. Jarduera-multzoak**

- A) Oinarrizko Tarifa, edozein erabiltzailek ondorengo jardueretako bat egitea ahalbidetzen duena aldez aurretik adostutako ordu batean: fitness-a, aerobic-a, mantentzeko gimnasia, dantzak, lerroko patinajea, body power-a, igeriketa gidatua, aquagym-a eta kopuru irekiko eta antzeko kirol helburuak dituzten beste jarduera batzuk.
- B) Plus-Tarifa, edozein erabiltzailek ondorengo jardueretako bat egitea ahalbidetzen duena aldez aurretik adostutako ordu batean: pilates-a, barruko txirrindularitza, stretching-a eta kopuru txikiko edo antzerako kirol helburuak dituzten eta/edo banakako kirol-makinak behar diren beste jarduera batzuk.
- C) Premium-Tarifa. 16 urtetik gorakoentzat, Fitness-gelara bere jarduera ordutegiaren edozein ordutan sartu daiteke eta oinarrizko eta plus tarifetan jasotako jarduera bat edo gehiago egin aldi berean, egunean bi saio gehienez egiteko mugarekin, baldintza bakarra aurrez aurre edo telefonoz egunean bertan plaza erre-erbatzea izanik, ikastaro bakoitzaren gehienezko plaza kopurua ez gairiditzeko.

5.2. Tarifak

Kirol jarduera fisikoetan izena emateagatik ondorengo ordainduko da:

	Abonatuak (€)	Abonatugabeak (€)
Oinarrizko tarifa hileko		
30 minutu astean	9,25	14,30
Saio 1 astean	13,95	21,70
Saio 1,5 astean	22,45	34,80
2 saio astean	26,80	41,45
3 saio astea	35,40	54,90
Fitnessa Hileko, sarrera librel	35,40	54,90
Plus-Tarifa Hileko		
30 minutu astean	10,20	15,90
Saio 1 astean	16,30	25,25
Saio 1,5 astean	25,15	39,00
2 saio astean	30,25	46,80
3 saio astean	40,10	63,05
Norbanakoari egokitutako prestakuntza fisikoa		
60 minututako saio 1	42,65	66,15
Premium-Tarifa hileko		
Fitness + Oinarrizko Tarifa + Plus-Tarifa	44,00	68,30
Padeleko ikastaroen tarifak		
1 saio astean (14 urte arte)	19,60	29,65
1 saio astean (helduak)	23,80	29,65
2 saio astean (14 urte arte)	33,85	55,00
2 saio astean (helduak)	42,30	55,00

Hileko kuotaz gain aukera dago hileko bigarren hamabostaldian fitness egiteko eta Premium delako tarifa alta emateko. Kasu horretan ehuneko 40ko deskontua aplikatuko zaio hileko kuotaren prezioari. Eskaerak egiteko epea hilabete bakoitzaren 11tik aurrera hasiko da.



Tarifen ehuneko 20ko murrizketa egingo zaie oinarrizko zein plus tarifetako bi jardueratan edo gehiagotan aldi berean alta emanda dauden abonatuak. Deskontua jarduerarik merkeenaren prezioari aplikatuko zaio.

6. Igeriketa-ikastaroak

6.1. *Jarduera-multzoak*

- A) Haurtxoentzako igeriketa-ikastaroak eta antzerako kirol helburuak dituzten beste batzuk.
- B) 3 urteko haurtxoentzako hilabeteko igeriketa-ikastaroak eta antzerako kirol helburuak dituzten beste batzuk.
- C) 4 urtetik aurrerako haurrentzako eta helduentzako igeriketa-ikastaroak eta antzerako kirol helburuak dituzten beste batzuk.

6.2. *Tarifak*

Uretako jardueretan izena emateagatik ondorengoa ordainduko da:

	Abonatuak (€)	Abonatugabeak (€)
Haurtxoentzako igeriketa hilabeteko		
Saio 1 astean	26,80	41,45
3 urteko haurtxoentzako igeriketa hileko		
1 saio astean	22,95	35,50
2 saio astean	44,00	68,30
4 urtetik 11ra arteko haurrentzako igeriketa hileko		
Saio 1 astean	13,95	21,70
2 saio astean	26,80	41,45
Helduen igeriketa hileko		
2 saio astean	26,80	41,45
Norbanakoari egokitutako prestakuntza fisikoa		
60 minututako saio 1	42,65	66,15

Tarifen ehuneko 20ko murrizketa egingo zaie 3 urteko haurtxoentzako igeriketa-ikastarotik aurrera bi jardueratan edo gehiagotan eta oinarrizko zein plus tarifen baitako jarduera baten aldi berean alta emanda dauden abonatuak. Deskontua jarduerarik merkeenaren prezioari aplikatuko zaio.

7. Gorputzaren tratamenduak

7.1. *Tarifak*

Gorputzaren tratamenduak egiteko erreserba egiteagatik ondorengoa ordainduko da:

	Abonatuak (€)	Abonatugabeak (€)
Sauna-Turkiar bainua		
30 minutuko saioa	Doan	5,40
5 saioko bonoa		24,30
UVA izpidun kabina bertikala		
8 minutuko saioa	4,55	7,50
5 saioko bonoa	20,35	34,85

**8. Ikastaro monografikoak eta kanpainak****8.1. Tarifak**

Ikastaro monografiko eta kanpainetan izena emateagatik ondorengo ordainduko da:

	Abonatuak (€)	Abonatugabeak (€)
Ikastaro monografikoak		
Udaberri Kirolaria	29,10	42,40
Kirolaz Blai Uda	91,75	133,20
2-3 urtekoentzako Igeriketa Ikastora Trinkoa (8 saio)	44,00	68,30
+ 4 urteko haurtoentzako eta helduentzako Ikastaro Trinkoak (20 saio)	60,40	109,50

	Hilean ikasleko (€)
Eskolen igeriketa-kanpainak eta unitate didaktikoak	
Saio bakoitza monitoreaekin	1,75
10 saioko ikastaroa monitoreaekin	14,70
20 saioko ikastaroa monitoreaekin	29,40

(*) Lehenengo 2. maila gehienez 15 plaza, eta gainerako 20 postu.

9. Erabilera-hitzarmenak

Ermuko Udal Kirol Erakundeak hitzarmenak sinatu ahal izango ditu kirol instalazio ezberdinen kirol erabilera jarraitua arautzeko (kirol anitzetako pistak, futbol zelaiak, gimnasioak, pilotalekuak, squash-a eta balio anitzetarako aretoak, etab.).

9.1. Ikastetxe eta kirol erakundeei kirol instalazioak doan lagatzea

- Helbide soziala Ermuan duten derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatuei Gorputz Hezkuntzako saioak emateko.
- Helbide soziala Ermuan duten ikasleen Guraso Elkartea eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Eskolako Kirol Jardueren Urteko Programaren barruan kirol jarduerak egiteko, jokalaria guztiak abonatuak direnean.
- Helbide soziala Ermuan duten irabazi-asmorik gabeko kirol talde eta elkarteei federatuen arteko norgehiagokak egiteko, jokalaria guztiak abonatuak direnean.

Lagapen honek ez du bere baitan hartzen kasuan kasuko kirola egiteko behar den materiala muntatzea, prestakuntza lan gehigarriak eta kirol materiala lagatzea.

9.2. %50eko deskontudun lagapenak

Federatuen arteko edo jolas-lehiaketetan parte hartuz kirola erregulartasunez praktikatzeko dutela egiaztatzen duten Ermuan finkatutako irabazi-asmorik gabeko erakundeek, edo erakundea sortu zen helburuekin bat datorren kirol programa bat egiten badute, %50eko deskontua izango dute beraien entrenamenduak egiteko denboraldiko erreserbak egitean, beti ere jokalaria guztiak abonatuak badira eta erreserba hori jarraitua baldin bada.

9.3. Kiroldegian doan sartzeko lagapenak

Egingo den jardueraren gizarte edo kirol mailako interesari erantzuteko, dagokien organoetan aintzatetsitako kirol federazioek egiten duten instalazioen erabilera, erreserbatutako espazioak okupatzearen prezioa besterik ez dute ordainduko, doan izanik kirolarien sarrera, horretarako Ermua UKEk zehaztutako baldintzen arabera.



9.4. *Irabazi-asmorik gabeko kirol erakunde adierazgarriekin laguntza-hitzarmen bereziak, udalerrian lehentasuna duten kirol ospakizunak egiteko, kirol hastapenerako haur eskoletarako edo kirolariak prestatzeko*

Atal honen baita izango dira, halaber, jarduera-eremua udalerriaz gaindikoa duten eta, egoitza soziala Ermuan izan ez arren, beraien jarduera-eremuan Ermua duten eta ekintzak bertan egiten dituzten elkarteak Kasuan kasuko hitzarmenean ezarritakoa bete beharko da.

9.5. *Kirolgintza suspertzeko beste hitzarmen batzuk:*

Enpresa, ikastetxe eta bestelako erakunde eta elkarten kasuan, UKEk neurria eginiko ikastaro eta jarduera bereziak antolatzen ditu talde itxientzat, kirol jarduerak zuzenean antolatu ahal izateko.

Kirol jarduerak suspertzeko Hitzarmenen kasuan, ondorengoa ordainduko da:

Kirol jarduerak suspertzeko hitzarmenak	Hilean taldeko (€)
Pistaren modulu 1 edo gimnasioa monitorearekin, astean saio 1	150,10
Pistaren 2 modulu monitorearekin, astean saio 1	196,55
Pistaren 2 modulu 2 monitorerekin, astean saio 1	264,95
Pista osoa monitorearekin, astean saio 1	243,15
Pista osoa 2 monitorerekin, astean saio 1	333,75
Igerilekuaren kale 1 monitorearekin, saio 1 astean	163,05
Igerilekuaren kale 1 monitorearekin, 2 saio astean	304,50

Pistan, gehienez 25, minusbaliatuak 12 gehienez; igerilekuan 12 gehienez, minusbaliatuak 6 l En pista máximo 25, discapacitados/as máximo 12, excepto piscina máximo 12, discapacitados/as máximo 6.

10. Instalazioak jarduera berezietarako erabiltzea

instalazioak ohiz kanpoko kirol ikuskizunetarako, kirolaz kanpoko jardueretarako edo kultur jardueretarako erabiltzeko eskubide, betebeharrak eta baldintzak arautzea da atal honen xedea.

Instalazioak eguneroko kirol jardueretatik aparteko jardueretarako erabiltzeko eskubidea izango dute pertsona fisiko edo juridiko, kirol elkarte eta aintzatespena duten bestelako erakunde guztiek, Ermuko UKEren zerbitzu-emateko arautegia betez, erabilera-eragatik dagozkien tasak ordaintzen badituzte.

Irabaz asmorik gabeko erakundeek edota Udalak berak antolatutako jardueren kasuan, beti ere zinegotzi ordezkari batek arrazoi sozialak, ongintzazkoak kulturalak edo herri-erakundeak azalduz egindako proposamena dagoenean, ez da instalazioak erreserbatzeagatik tasaren likidaziorik egingo. Zinegotziaren proposamen horrek UKEko presidentearen oniritzia izan beharko du.

Salbuespenean ez dira sartzen, hala badagokio, garbiketa-gastuak, ezta instalazioa irekitzeko behar diren zerbitzuen ezohiko kontratazioak eragindako gastuak ere, baldin eta ohiko ordutegitik kanpo egiten bada, eta aparteko zenbatekoa ordaindu beharko da.

10.1. Ohiz kanpoko kirol ikuskizunak

Instalazioak ohiz kanpoko kirol ikuskizunetarako erreserbatzeagatik ondorengo erabilerean arabera ordaindu beharko da:

- Kirol-jaialdi, -txapelketa edo ospakizun ez arautuetarako erabiltzea, kirolari ez profesionalen partaidetza izanik.
- Kirol-jaialdi, txapelketa edo ospakizun ez arautuetarako erabiltzea, kirolari profesionalen partaidetza izanik.
- Eskoletako kirol-jokoen, txapelketa federatu edo goi-lehiaketazkoen finalerako eta kirol-kontzentrazioetarako erabiltzea, egun erdiz edo egun osoz.



10.1.1. Partaide ez profesionalen txapelketak eta norgehiagoka ez arautuak:

	Euro
Partaide ez profesionalen txapelketak eta norgehiagokak ez arautuak	
M.A. Blanco kiroldegiaren edo Betiondo Kirol Gunearen pista osoa, partidako	56,85
M.A. Blanco kiroldegiaren edo Betiondo Kirol Gunearen pista osoa, partidazo, modulua	39,80
Betiondo futbol-zelai osoa, partidako	71,60
Betiondo futbol-zelaia, futbol 7 modulua, partidado	46,45
Aritzmeni Pilotalekuaren kantxa osoa, partidako	33,00

10.1.2. Profesionalen txapelketak eta norgehiagoka ez arautuak

	Euro
Profesionalen txapelketak eta norgehiagokak ez arautuak	
M.A. Blanco kiroldegiaren pista osoa, partidako	89,25
Betiondo futbol-zelai osoa, partidako	112,65
Betiondo futbol-zelaia, futbol 7 modulua, partidako	73,00
Aritzmeni Pilotalekuaren kantxa osoa, orduko	49,00

10.1.3. Eskoletako kirol-jokoen, txapelketa federatu edo goi-lehiaketazkoen finalak eta kirol kontzentrazioak

	Euro
Eskoletako kirol-jokoen, txapelketa federatu edo goi-lehiaketazkoen finalak eta kirol kontzentrazioak	
Kirol anitzetarako pista estalia, egun erdiz	321,85
Kirol anitzetarako pista estalia, egun osoz	509,65
Atletismoko pista eta modulu estalia, egun erdiz	134,10
Atletismoako pista eta modulu estalia, egun osoz	214,60

Alokairuaren prezioan sartzen dira erreserbatu den instalazioaren eta aldagelen erabilera, bai eta kirolariak jarduerak irauten duen denboran espazio horretan doan sartzea eta harmaila, markagailu eta uraren erabilera. Aparte ordaindu beharko da instalazioa zabaltzearen gastuak, irekita egoten den ordutegitik kanpo egiten bada ekitaldia.

Atal honetako ekitaldietarako 300,00 euroko fidantza edo banku-abala eskatuko zaio espazioa erabiltzeko baimena eskatu duen pertsonari, jardueraren ondorioz sor litezkeen kalteez eta hondamenez Ermua UKEr erantzuteko. Fidantza hori Ermua UKEn ordainduko da, behin erakundeak eskaera onarpena jakinarazten duenean. Ez dela inolako kalte edo hondamenik sortu egiaztatzen denean fidantza itzuli egingo da.

Udalak berak antolatzen dituen jardueren kasuan ez da fidantzarik edo banku-abalik behar.

10.2. *Kirolez kanpoko jarduerak*

Instalazioak kirolez kanpoko ezohiko jarduerak egiteko erreserbatzeagatik ondorengo ordainduko da:

	Euro
M.A. Blanco Kiroldegiko Pista	
Irabazasmodun jardueretarako, jardunaldiko	3.213,25
Irabaz asmorik gabeko jardueretarako, jardunaldiko	1.539,60
Instituzio-erreserbetarako, jardunaldiko	827,65



	Euro
Aritzmendi Pilotalekuko Kantxa	
Irabazasmodun jardueretarako, jardunaldiko	1.835,25
Irabaz asmorik gabeko jardueretarako, jardunaldiko	917,55
Instituzio-erreserbetarako, jardunaldiko	433,90
Irabazasmodun jardueretarako, orduko (6 ordu gehienez)	136,70
Irabaz asmorik gabeko jardueretarako, orduko (6 ordu gehienez)	80,70
Instituzio-erreserbetarako, orduko (6 ordu gehienez)	49,60

	Euro
Baritzmendi Pilotalekuko Aretoak	
Irabaz asmorik gabeko jardueretarako, orduko edo ordu-zatikiko	28,50
Instituzio-erreserbetarako, orduko edo ordu-zatikiko	13,90

	Euro
Kiroldegiko Erabilera Anitzeko Aretoa	
Irabazasmodun jardueretarako, orduko edo ordu-zatikiko	46,10
Instituzio-erreserbetarako, orduko edo ordu-zatikiko	Doan

Eguneko alokairuaren zenbateko %50 murriztu daiteke instalazioa irekita dagoen denboraren erdia edo hori baino gutxiagorako alokatzen bada.

Aipaturiko ospakizunak egiteko ohiko kirol-jarduna eragozten bada, ekipamendu osagarriak muntatzeko eta desmuntatzeko behar den denbora ere kontutan hartuko da tarifak ezartzean.

Espazioak erabiltzeko orduan kirol ekitaldi eta erabilerek lehentasuna izango dute besteekiko.

Agertokia muntatzea eta desmuntatzea, kantxa babesteko bilkariak eta aulkiak ipini eta kentzea, materiala lekuz aldatzea eta garraiatzea, garbiketa-lanak (kasu bakoitzaren araberakoak) eta antzerako zerbitzuak erakunde antolatzailearen kontura joango dira. Horiek egiteko zerbitzuak UKEk kontratatuta izan ezker, enpresa esleipendunak beteko ditu, berori emateko UKEk ezarritako prezioen arabera, zerbitzua antolatzaileari fakturatuz.

Kirol jardueraz kanpoko jarduerak berariazko aseguru bat izango dute, erantzunkizun zibilekoa eta hirugarrenei sor dakizkiekeen kalteak ordaintzeko; horrez gain 1.000,00 euroko fidantza ere utzi beharko da UKEn eskudirutan, sor litezkeen kalteei erantzuteko berme moduan. Fidantza hori interesdunari itzuliko zaio, horren aldeko txostenak prest daudenean.

Udalak berak antolatzen dituen jardueren kasuan ez da aseguruik edo fidantzarik behar.

11. Produktuen salmenta eta kirol materialaren alokairua

kirol produktu eta materialen salmenta:

	Euro
Produktu eta kirol materialen salmenta	
Bainu-txanoa	4,10
Mikrofibrazko toila txikia	5,90
Leihatila-sarrailarako giltzarrapoa	4,25
Contactless eskuturrekoa	5,00



	Euro
UVA solariumerako betaurrekoak	2,75
UVA solariumerako erabilera bakarreko pegatinak	0,60

	Euro
Produktu eta kirol materialaren alokairua (orduak)	
Padeleko edo squasheko erraketa	4,25
Padeleko pilota-potea edo squasheko pilota	1,15

12. Publizitatea jartzeko espazioen alokairua

kiroldegiko instalazioetan publizitatea egiteko espazioak erabiltzeagatik ondorengo ordainduko da:

	Euro
Publizitatea egiteko espazioen alokairua	
2.500 x 1.500 mm-ko errotulua	1.224,00
1.250 x 750 mm-ko errotulua	663,00

Publizitatea ipintzen den egunetik, alokairu-aldia urtebetekoa izango da, eta urtea betetzen denean UKEK interesdunari abisatu gabe kendu ahal izango du publizitatea.

Errotuluaren diseinua eta, hala denean, berori inprimatzea, ipintzea eta kentzearen kostua iragarlearen kontura joango dira.

Iragarleak berak aukeratuko du Instalazioan libre geratzen diren publizitate-espazioen artean zein okupatuko duen.UKEko zuzendaritzak eskubidea izango du bere ospakizunak iragartzeko beharrezkotzat jotzen dituen espazioak erreserbatzeko.

UKEn zuzendaritzak iragarkiaren edukia aztertu ahal izango du. Ez da adierazpen, hitz, ikur erasotzailerik onartuko, ez eta instalazioen kirol espiritua kaltetzen duenik.

13. Kirol instalazioak bere ordutegitik kanpora irekitzea

Udalaren kirol-zentroaren irekitze-ordutegitik kanpo egiten diren jarduera guztiengatik, kirolarekin zerikusia dutenak zein ez dutenak, ondorengo tasak ordaindu beharko dira:

Ordutegitik kanpo irekitzeagatik, harreran arduradun bat jarrita, eta energia elektrikoa eta ur beroa barne hartuta, baina mantentze-lanetako langile teknikorik gabe.

	Orduak (€)
Ordutegiti kanpo irekitzea	
Ordubete arrunta (lanegunetan, 6:00etatik 22:00etara)	41,50
Ordubete gauez (lanegunetan, 22:00etatik 6:00etara)	51,85
Ordubete jai-egunez (igande eta jai-egunetan, 6:00etatik 22:00etara)	62,20
Ordubete jai-eguneTan gauez (igande eta jai-egunetan, 22:00etatik 6:00etara)	72,50
Mantentze-lanetarako teknikaria,bere ordutegitik kanpora (lantegi eta ordu bakoitzeko)	31,70

Prezio horietan ez dago aparteko beste zerbitzurik, garbiketa ere ez. Horiek aparte ordaindu beharko dira.

**14. Tasa bereziak**

Jarraian zerrendatzen diren zerbitzuak eskuratzegatik ondorengoa ordainduko da:

	Euro
Tasa bereziak	
Txartel berria edo txartel bikoiztua egitea	2,65
Kuotak ez ordaintzeagatik txartela berraktibatzea	3,50
Taldeentzako kaiolaren giltzarrapoa apurtu edo galtzea	7,25
Txartela itzultzea, behar ez bezala erabiltzeagatik kendu egin zelako	32,05
Moketa babesgarria pista osorako, muntatu gabe	172,80
Moketa babesgarria kantxako modulu baterako, muntatu gabe	83,30
Moketa babesgarria kantxako modulu baterako, muntatu gabe	11,30
Baloia, squasheko erraketa edo padeleko pala apurtu edo galtzea	52,05

15. Zerbitzu berriak

Ordenantza honetan aurreikusi gabeko zerbitzuren bat azaltzen bada, onetsitakoen ildo beretik ezarriko dira tasa berriak.

PREZIO PUBLIKOAK**3. Ondorengo prezio publikoak arautzen dituzten Ordenantza Fiskaletan aipatzen diren aldaketak behin-betikotasunez onestea:****28. ORDENANTZA****TOKI GARAPEN ALORREKO AZPIEGITURAK
ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA**

28. Ordenantza Fiskala goitik behera aldatu da, 1, 2 eta 7 artikulua izan ezik. Honela idatzita geratu da:

3. artikulua

1. Izarra Zentroan eta Artamendiko praktika-lekuan Toki Garapeneko Alorrak kudeatutako Ermuko Udalaren azpiegitura eta espazioak erabiltzeagatik prezio publikoen tarifak honakoak izango dira:

a) *Izarra Zentroa*

a1) 0 solairuko tailerrak

Coste €/m ² al mes/m ² -ko kostua hilean				
Año 1. urtea	Año 2. urtea	Año 3. urtea	Año 4. urtea	Año 5. urtea
2,00	2,00	3,00	3,00	3,00

Egonaldia bost urte baino gehiago luzatzen bada, beti ere Ermuko Udalak eskaera onartu ondoren, kostua 4,00 eurokoa izango da/m²ko.

Tarifa horien baitan mantentze-kostuak eta energia eta komunikazio gastuak hartzen dira, bestelako gastu komunez gain (espazio partekatuen mantentzea eta abar).

Energia-kontsumoaren beharrak ezohikoak badira, errentariarentzat propio kontagailu elektriko bat ipintzeko aukera aztertuko da, horren kostu guztiak bere kontura izanik.